

BERANGO

gaur

64. ZBKIA 2017KO UZTAILA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
Guztion konpromisoa
Un compromiso común
21

berangokoudala@berango.org



“AUZOAK HOBETUZ” HERRITARREN PARTE HARTZEAREN BIDEZ AUZOAK HOBETZEKO MARTXAN JARTZEN DA

AXGANE ETA BASOTXUN 52 ESKAERA AURKEZTU ZIREN
ETA HAUETAKO BATZUK BETE EGIN DIRA

Auzoak Hobetuz” auzokoen iradokizunak aztertzeko sortzen den programa da eta helburua Berangoko auzo guztien hobekuntza lortzea da. Prozesu parte hartzaileak dira eta Udalak arian-arian martxan jarriko ditu, pasadan otsaileko 21etik 28ra Axgane eta Basotxun egin zen bezala. Han 52 proposamen bildu ziren, gehienak bideragarriak eta jada burutu direnak. Teknikoek proposamen guztiak aztertu ondoren, itzultze txostena egin dute auzokoei behin betiko emaitzak eta planteatutako iradokizunak aurrera eramateko eman diren pausuak ezagutarazteko.

“Auzoak Hobetuz” programarekin Udalak herritarren eskaerak kontutan izan nahi

ditu bideragarriak direnak burutu ahal izateko eta auzoen bizitza kalitatea hobetzeko. Helburu horrekin “informazio puntuak kokatzen dira, auzoaren inguruetan postontziak jartzen dira eta helbide elektroniko bat eskaintzen da birtualki egitea nahia go duten pertsonentzat”, azpimarratzen du Herritarren Parte Hartze sailaren ardura den Carlos Collado zinegotziak.

Burututako iradokizunen artean aisialdirako zonaldeetan hobekuntzak egitearekin erlazioatutakoak nabarmendu ziren. Guztira 13 izan ziren eta hauetatik 6 Santa Anako parkeko zuhaitzia hobetzeari buruzkoak izan ziren. Hemen urtadar berriak landatuko dira eta gaur egun dauden zuhaitzak aztertuko dira, egoera txar

rean daudenak kentzeko. Zelaiak ere berrituko dira eta Axgane plazako parte-
rrea bete egingo da.

Zortzi proposamenek aparkalekuekin zerikusia izan zuten. Zentzu horretan, Josu Tabernaren eta Conchi Okindegiaren zonaldea asfaltatu egin da eta bizikletak aparkatzeko lekua jarriko da Santa Anan, eskatu zuten bezala. Era berean, Ricardo Otxoa parkearen aurreko espaloietan eta Axganeko zenbait garajeen alboetan piboteak jarri dituzte okerreko aparkalekuak ekiditzeko. Honez gain, Udaltzaingoari minusbaliadun pertsonentzako aparkalekuetako eta aparkatzea debekatuta dagoen lerro horiko zonaldeetako kontrola areagotzea eskatu zaio. “Auzoak Hobetuz Berangoko auzokoei beraien auzoetarako eskatzen dituzten hobekuntzak aurrera eramateko bide ona da”, amaitzen du Colladok.



ABUZTUAREN 6AN, HERRI-BAKALADAREKIN ETA "MARAN"EN GAUERROMESALDIAREKI N, JAIK BUKATUTZAT EMANGO DIRA

Abuztuaren 4an, eguerdian elizan egongo den meza-rekin, hasiera emango zaio 2017ko Santo Domingoko programari. Ondoren, nagusientzat hamaiketako bat egongo da eta Simon de Otxandategi taldeak haur-dantza erakusketa bat egingo du. 19:00etan, jendeak dantza dezan, Disko DJ Jaia hasiko da koreografia dibertigarriekin. Hogeita hamar minutu geroago, frontoian pilota-txapelketaren kanporaketak jokatuko dira. Zortzietan, Otxandategi Abestaldeak emango duen kontzertua baino lehen, hanburgesak eta sagardoa banatuko dira eta eguna bukatutzat emango da "Drindots" taldearen erromesaldiarekin.

Abuztuaren 5ean, 12:00etan, Berangoko Pala Txapelketaren seigarren edizioaren partidak jokatu dira, kategoria maskulino eta femeninoetan. Aldi berean, haurrentzako jolas-parkea zabalduko da. Bertan, puzgarriak eta haurrentzako jolasak egongo dira 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Arratsaldeko bostetan, tirolina eta ur-txirrista ere egongo dira, haurrak primeran pasa dezaten. Herri-kirolak maite dituztenentzat, arratsaldeko zazpietan, herriko probalekuan, idi probak izango dira. Zortzietan, "Txikis" taldeak bilbainadak abestuko ditu. Gaueko bederatzietan, oilaskoa eta sagardoa banatuko dira eta 22:30etan, Abba suediar talde famatuari tributua eskainiko zaio. Kontzertuan zehar, mozorro-lehiaketa eta zozketa bat egongo dira. Eguneko programa,



ABBA TALDE SUEDIARRARI OMENALDIKO KONTZERTUA, SANTO DOMINGOKO JAIETAN

ma, Dantza Disko Festa batekin amaituko da.

Abuztuaren 6an, herri-bakaladarekin, Santo Domingoko festak

bukatutzat emango dira. Haurrak primeran pasa dezaten, puzgarriak ipiniko dituzte 11:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bitsa-

ren jaia 13:30etan izango da eta haurrentzako tailerrak arratsaldean zabalduko dituzte. Zazpietan, txokolatada hasiko da eta arratsaldeko

zortzietatik aurrera, Maran taldearen erromesaldia hasiko da. Gaueko hamarretan, txorizoak sagardotan banatuko dira.

FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta (Goiuriko bidea). Bizkaia
Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00; Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK** -era.



Izena: **Saiko**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **2 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta aktiboa



Izena: **Lolo**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra, zikiratua**
Adina: **2 urte**
Tamainua: **Txikia**
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra**
Adina: **2,5 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta maitekorra



Izena: **Tak**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**
Arraza: **Spaniel Bretón**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsonekin**



KIROL EGUNAREN ARRAKASTA

Ume ugariak Kirol Egunaren aktibitateekin eta erakusketekin gozatu zuten. Antolatutako ekintzen artean martxa bat egin zen Berangotik, pertsona helduei osasunerako onuragarria den aktibitate fisikoa egitera, ibiltzea den

bezala, animatzeko asmoarekin. Kirolgunean burututako jardunaldian haurrek kirol desberdinetan jolasten dibertitzeko aukera izan zuten, eskubaloia, futbito, eskupilota edo txirrindularitza praktikatu zutelarik. Aktibita-

teek giza-harremanak areagotzeko eta eguna familian gozatzeko ere balio izan zuten. Ekitaldia Berango Antzokian amaitu zen, eskaintzen diren dantza ikastaro desberdinen erakusketarekin.



GIRO ONA SANJUANADAN

Giro familiar ona 2017ko Sanjuanada solidarioaren punturik nabarmenena izan zen berriro ere. Ehunka pertsona hurbildu ziren udako solstizioari hasiera ematen dion sute sinbolikoaz eta antolatutako ekintzez gozatzera. “Begira Taldea”k eta “DJ Xaibor”ek gaua girotu zuten eta, euriarekin batera, dantza alaiak eta jolasak ere egon ziren.

BUEN AMBIENTE EN LA SANJUANADA

El buen ambiente familiar fue otra vez la tónica de la Sanjuanada de 2017, que tuvo acento solidario. Cientos de personas se acercaron para disfrutar de la simbólica hoguera, que marca la llegada del solsticio de verano, y los actos organizados. Tanto “Begira Taldea” como “DJ Xaibor” divirtieron en una fiesta en la que no faltaron la lluvia ni los animados bailes y juegos.



ARDO EGUNAK IMANOL GOGORATU ZUEN

Imanol Mastigane –duela gutxi hildako antolatzailea eta herriko ekoizlea- Ardo Egunaren pasadan edizioaren protagonista nagusia izan zen. Bertsolarien eta trikitilarien emanaldiek eta Juan Luis Madariaga, José Luis Goirigolzarri eta Juan Mari Celaya harakinen abesti mexikarrek jardunaldia osatu zuten eta Mastigane hurbildutako pertsona guztien txaloaldi zabala eta oroitzapena jaso zuen. Herriko ekoizleek 600 ardo botila banatu zituzten, pintxo ugariekin lagunduta.

EL ARDO EGUNA RECORDÓ A IMANOL

Imanol Mastigane –organizador y productor local fallecido recientemente– fue el protagonista principal de la pasada edición del Ardo Eguna. Las actuaciones de bertsolaris, trikitilariis y las canciones mexicanas de los carniceros Juan Luis Madariaga, José Luis Goirigolzarri y Juan Mari Celaya redondearon una jornada en la que Mastigane se llevó el recuerdo y los generosos aplausos de todas las personas asistentes. Los productores locales repartieron 600 botellas de caldo, además de numerosos pintxos.